

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA, zeinaren bidez aldatu egiten den Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 22ko 60/2011 Foru Dekretua, gizarte inklusiorako laguntza berezia arautzen duena.

DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA por el que se modifica el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 60/2011, de 22 de marzo, regulador de la ayuda especial para la inclusión social.

I

I

Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 22ko 60/2011 Foru Dekretuaren bidez (gero, zati bean, abenduaren 13ko 207/2011 Foru Dekretuak eta ekainaren 19ko 79/2018 Foru Dekretuak aldatu zuten), gizarte inklusiorako laguntza berezia arautu da.

El Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 60/2011, de 22 de marzo, modificado parcialmente por Decreto Foral 207/2011, de 13 de diciembre y por el Decreto Foral 79/2018, de 19 de junio, regula la ayuda especial para la inclusión social.

Laguntzaren izaera juridikoari dagokionez, Euskadiko gizarte zerbitzuei buruzko 2008ko legearen 16.2 e) artikulua Gizarte Zerbitzuen prestazio ekonomikoen barruan sartzen ditu "beste prestazio ekonomiko batzuk, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko helburuen artean koka daitezkeenak". Hauxe da, berez, gizarte inklusiorako laguntza berezien kasua, aipatutako legeak foru aldundiei aintzatesten dien eskumenak egiteko laguntzen baitute.

En cuanto a la naturaleza jurídica de la ayuda, el artículo 16.2.e) de la Ley de Servicios Sociales del País Vasco de 2008 incluye como prestaciones económicas propias del Sistema Vasco de Servicios Sociales "otras prestaciones económicas que puedan establecerse en el marco de las finalidades propias del Sistema Vasco de Servicios Sociales", como es el caso de la ayuda especial para la inclusión social, que coadyuva al ejercicio de las competencias que, en materia de inclusión social, reconoce a las diputaciones forales la citada ley.

II

II

Foru-dekretu horren Azken Xedapen Lehenak hauxe ezartzen du: *"foru dekretu honen babesean emango diren laguntza ekonomiko indibidualen konputu osoa Bizkaiko Lurralde Historikorako aurrekontu orokorren kontura ordainduko dira"*.

El citado decreto foral señala en su Disposición Final Primera que *"el cómputo total de ayudas económicas individuales que se concedan al amparo del presente Decreto Foral se harán efectivas con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia"*.

III

III

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 9ko 114/2020 Foru Dekretuaren bidez aldatu egiten da Bizkaiko Foru Aldundiaren

Mediante Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 114/2020, de 9 de diciembre, se modifica el Decreto Foral de la



martxoaren 22ko 60/2011 Foru Dekretua, kredituaren eta aurrekontu-esleipenaren muga 2021. urterako eguneratzeko eta, horrela, bere kontura ordaintzeko foru dekretuan ezartzen diren laguntzak (1.600.000,00 euro 2021. urterako).

Diputación Foral de Bizkaia 60/2011, de 22 de marzo, en orden a actualizar para el año 2021 el límite de crédito y asignación presupuestaria, a cuyo cargo se harán efectivas las ayudas objeto del presente decreto foral (1.600.000,00 euros para el 2021).

2021 urteko ekitaldian egin diren laguntza bereziaren ordainketak kontutan hartuta, beharrezkoa da aurrekontuaren diru-izendapena aldatzea, urriko hilabeteko ordainketei aurre egiteko. Zentzu honetan, aurrekontuaren diru-izendapena 55.000,00 eurotan gehitzen da.

Habida cuenta de la evolución de los pagos de la ayuda especial a lo largo del ejercicio 2021, se hace necesario modificar la partida presupuestaria vinculada a la misma de cara a hacer frente a la mensualidad del mes de octubre. En este sentido, se incrementa esta partida presupuestaria en 55.000,00 euros.

Hain zuzen ere, ekainaren 19ko 79/2018 Foru Dekretuaren bitartez laguntza aldatu zenetik, alde batetik, eta bestetik, pertsona gazteei arreta osoa emateko programa martxan jarri zenetik, pertsona onuradunen kopurua nabarmenki handitu da. Zerbitzuak kudeatutako programetan egongo diren sarrerek gainera onuradunen kopurua handitzea ekarriko dute.

En concreto, la modificación operada en la ayuda mediante Decreto Foral 79/2018, de 19 de junio, y la puesta en marcha de un programa integral de atención a personas jóvenes, han supuesto un notable incremento en el número de personas perceptoras. Las previsiones de acceso a los programas gestionados por el Servicio supondrán que este número siga incrementado.

IV

IV

Xedapen hau onartzeko eskumenari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1.4 eta 17.2 artikuluen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseilua da organo eskuduna.

En relación a la competencia del órgano para la aprobación de la disposición, a tenor de los artículos 17.1º 4 y 17.2º de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, ésta corresponde al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia.

Horrenbestez, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2021eko ...aren ... an bileran azterturik, honako hau,

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia en su reunión del día ... de ... de 2021,

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:



Artikulu bakarra. *Aldatu egingo da gizarte inklusiorako laguntza berezia araupetu duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 22ko 60/2011 Foru Dekretua.*

Artículo único. *Modificación del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 60/2011, de 22 de marzo, regulador de la ayuda especial para la inclusión social.*

Beraz, honela geratuko da idatzita Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 22ko 60/2011 Foru Dekretuaren lehen azken xedapena:

La Disposición Final Primera del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 60/2011, de 22 de marzo, queda redactada en los siguientes términos:

“5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duenaren xedatutakorekin bat etorri, foru dekretu honen itzalpean ematen diren banako laguntza ekonomikoak Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontuen kargura ordainduko dira; hona partida xehekatuak: Saila (09), Zentro Kudeatzailea (0903), Programa (231.110), Ekonomikoa (461.00). 2021. urterako gehienez Milioi bat seihun eta berrogeita hamabost mila euro (1.655.000,00€) emango da. (Pep 2007/0265 gizarteratzeko laguntza bereziak).

“De acuerdo con lo dispuesto en el Decreto Foral Normativo 5/2013 de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, el cómputo total de ayudas económicas individuales que se concedan al amparo del presente decreto foral se harán efectivas con cargo a los Presupuestos del Territorio Histórico de Bizkaia partida consignada como: Departamento (09), Centro Gestor (0903), Programa (231.110), Económico (461.00), cuya asignación tendrá como límite en origen para el año 2021 la cantidad de un millón seiscientos cincuenta y cinco mil euros (1.655.000,00€) (Pep 2007/0265 ayudas especiales para la inserción).

AZKEN XEDAPENA

DISPOSICIÓN FINAL

Azken xedapen bakarra. *Indarrean jartzea.*

Disposición final única. *Entrada en vigor.*

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

El presente decreto foral entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el <<Boletín Oficial de Bizkaia>>.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna sustatzeko foru diputatua/Diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad M^a TERESA LAESPADA MARTÍNEZ

Ahaldun Nagusia/Diputado General UNAI REMENTERIA MAIZ